

➤ **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

Gure bezero zuzenak paper-dendariak izango dira, hots, ikasketetarako materiala saltzen duten enpresak.

Familiekin harreman bat edukitzeko web-gune bat izango dugu, horrela, haiek guri zuzenean erosi ahalko digute eta ere bai aholkuak emango dizkigute gure produktua hobetzeko

Komunikazio kanalei dagokionez, guk bi kanal erabaki ditugu.

- Lehenengoa, gaur egun indar eta influentzia handia duten pertsonaia publikoei (adibidez, Maria Corluma, Laura Garcia, Teresa Sanz, ...) gure produktua bidaliko diegu eta haiek erabili ondoren beraien sare sozialetan publizitatea emanago diote eta horrela gure produktua ezaguna egingo da salmentak handituz. Gainera, Influentzia handia duten pertsonen ordaindu beharko diegu, gure produktua sustatzeko.
- Beste aldetik, bigarren kanala denda-txikiei edo gure bezero zuzenei gure produktua probatzeko bidaliko diegu.

Orain, banaketa kanalei dagokionez, gure enpresa izango da paper-dendariei zuzenean eramango diotenak, horrekin lortu nahi duguna da dendariekin harreman on bat izatea eta horrela haiek gure produktua gustura gomendatzea. Enpresak, gure produktua furgoia bidez helaraziko die eta honez bidez arinago mugituko gara eta ahalik eta denda gehiagotara gure produktua ailegatuko da. Denda horiekin, harremanetan jarriko gara gure web-gunearen bitartez, guk haiei zuzenean salduko diegu eta haiek salmenta zuzena egingo dute bere bezeroekin.

Bezeroarekiko produktua erakargarria egiteko , bost fasez gidatuko gara, pertzepzioa, ebaluazioa, erosketak, entrega eta salmenta ondorengoa.

- Pertzepzioa ziurtatzeko, gure produktua erakargarria izatekoa kolore politak izango ditu eta baita ere diseinu deigarri bat.
- Diseinu deigarriaz erakarrita ondo ebaluatuko dute probatu eta gero eta erosteko nahia handituko da
- Bukatzeko produktua txarto badator eta hortaz, akatsik badu edo erabilgarria ez bada ez da egongo arazorik bueltatzeko edo aldatzeko.

Iragarkiak edo publizitatea: Sare sozialetan iragarkiak jarriko ditugu instagram eta tiktok bezalako plataformetan, horrela gure bezero gazteek gure produktua

ezagutzeko aukera gehiago izango dituzte. Ikasle diren eta aldi berean, sare sozialetan “influencer” moduan jarduten duten gazteekin elkarlanean egotea gustatuko litzaiguke. Publizitatea egiteko dugun ideia nagusia, haiek gure produktua ezagutzera ematea da, publizitatea eginez, eta gu bueltan ordainduko genieke.

- Maria Corluma. Bere medikuntza ikasketen prozesua “tiktoken” partekatzen du.
- Cristina Asai. Ikus-entzunezko komunikazioko ikaslea. Eduki eta tip asko partekatzen ditu hobeto antolatzeko eta ikasteko
- Teresa Sanz zuzenbideko ikaslea da. Antolatzeko aholkuak partekatzen ditu.
- Andres, sareetan Lawtips izenez ezaguna, abokatu da eta zuzenbidearekin lortutako aholkuak ematen ditu.
- Laura Garcia matematika irakaslea da



